

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA



Ikastetxeentzako
hezkuntza programa

2020-2021

Balenciaga Slow Fashion
Ikastetxeentzako hezkuntza programa
2020-2021

Aurkezpena	5
Helburu nagusiak	6
«Moda mantsoaren» bidean	8
Gai-ardatzak	9
Jarduerak	15
HAUR HEZKUNTZA	
Eraldatutako gorputzak	16
LEHEN HEZKUNTZA	
Ehungintza arloko ofizioak	17
Kolore eta tindagai naturalak	18
Hariari jarraitu!	19
Silueta (u)topikoak	20
BIGARREN HEZKUNTZA	
Kustomizatu eta birziklatu	21
Azaletik bolumenera	22
Moda, denboraren makina	23
Moda eta elektronika sortzailea	24
BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA	
Balenciaga, tradizioa eta berrikuntza	25
Balenciaga eta teknika	26
Balenciaga eta silueten iraultza	27
Balenciaga eta goi mailako jantzigintza: slow fashion	28
NEURRIRA	29
DATU PRAKTIKOAK	30



Parte hartzeko eta ikasteko jardueren bidez, Museoa eta horren edukia ezagutzeko eta disfrutatzeko sortutako programa hau hezkuntza- etapa ezberdinetara eta curriculumeko edukietara egokitutako ekintzez osatuta dago, eta jantziak eta horien inguruko guztiak transmisio-tresnatzat erabiltzen dira.

- Modaren sektorearen jasangarritasunarekin zerikusia duten balioetan sentsibilizatzea eta, etorkizuneko kontsumitzaile eta/edo sortzaile diren aldetik, beren irizpidea osatzen laguntzea. Horretarako, joskintzarekin eta jantzien lanbidearekin zerikusia duten materialei, koloreei, formei, teknikei eta bestelako alderdiei buruzko ezagutzak helarazten dira, ikasleek beren gustuak eduki ditzaten eta beren eguneroko bizitzan ehungintzako lanak eta sorkuntzak bereizi eta aintzat har ditzaten, ikuspuntu horretatik.
- Ikastetxeei, ikasturteko plangintzan, ikasgelatik kanpoko jarduera erabilgarriak eta aberasgarriak sartzeko aukera eskaintzea; horretarako, kontzeptu hurbil eta egunerokoekin lan egingo da, jantziaren kontzeptuarekin esaterako, eta eskolako curriculumeko beste ezagutza eta kontzeptu konplexuago batzuk bideratzeko baliatuko dira.
- Kultur ondarea aintzat hartu dadin bultzatzea, eta bereziki bultzatzea Cristóbal Balenciagaren sormenari esker sortutako ondarea; horretarako, harreman zuzena edukiko da haren lanarekin, eta ikasleei laguntza eta orientazioa emango zaie obren esanahia aurkitzeko eta beren ezagutza osatzeko.



«Moda mantsoaren» bidean

Kultura materialaren ahalmen handiko osagaia da janzkera; garaian garaiko gizartearen eta gizabanakoaren ispilua da, komunitate bati buruzko informazioa lortzeko aukera ematen diguna. Izan ere, janzkerak, ikuspegi antropologikotik, erabilerari dagokion balioaz gain, balio sinbolikoa ere badu, aukera ematen baitu, alderdi materialei buruzko ikuspegia ez ezik, alderdi ez materialei buruzkoa ere osatzeko.

Modak, XX. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik, eta industria transektorial handia bihurturik, eragin handia du ekonomian, baina, aldi berean, hainbat kanpo-eragin negatibo sortzen ditu ingurumenean; gaur egungo krisi klimatikoa kontuan hartuta, eragin horiek berrikustea komeni da. Munduko bigarren industria kutsagarriena da moda, bereziki «moda bizkorra» delakoak eraginda, zeinaren logika baita merke fabrikatzea, maiz kontsumitzea eta jantzien bizitza laburra izatea.


Naturaren mugekin bateragarriak diren jardunei buruz kontzientziaztea ez da landu beharreko gai bat besterik gabe, baizik eta gure egunerokotasunean eztabaidak

sortu eta zeharkako jarrerak eta ohiturak bultzatzeko betebeharra. Era berean, azken hamarkadetan, jokabide eta filosofia berrien eragile eta sustatzaile bihurtu da modaren fenomenoak. Izan ere, modan ere, gero eta kontzientzia handiagoa dago eta bide iraunkorrak bultzatzen dira, hala nola tokian tokiko ekoizpena eta zero kilometroa, birziklatzea, neoartisautza, lehengai natural eta organikoetara itzultzea, biomaterial berriak, etab. Alegia, moda jasangarrirako paradigma berri baterantz daramaten ikuspegiak: hazkundea mugatzea, hondakinak murriztea eta ekonomia zirkularra sustatzea. Azken batean, «moda mantsoaren» eredu berri bat, zeina ez baitagoen, inondik ere, Cristóbal Balenciagaren lan-filosofiatik urrun.

Horregatik guztiagatik, eskola-programak modaren jasangarritasuna azpimarratzen du bereziki, eta hezkuntza-eta guztietan lantzen dira sentsibilizazioa eta aktibismoa, proposamen praktikoekin bitartez eta erreferente gisa hartuz Cristóbal Balenciagaren irudia eta ondarea, modu nabarmenean uztartzen baititu kultura materiala eta jasangarritasuna kontzeptuak.


Gai-ardatzak

Hala, hiru gai-ardatzetan antolatzen dira jarduerak. Zeharkako gaiak dira hezkuntza-etapa guztietan, eta etapa bakoitzaren beharrak eta berezitasunak kontuan hartuta lantzen dituzte proposamenak.




Kulturak

Jantziak zuzeneko lotura du bera jantzen duen gorputzaren formarekin. Jantziaren egikerak berehala erakartzen du arreta gorputzaren alde batzuetara, nabarmenduz edo ezkutatuz, lortu nahi den silueta lortu ahal izateko. Historian barrena kultura-produktu gisa aldakorra izan den silueta. Gorputzaren, jantzien eta modaren arteko harremana ulertzea lagungarria da fenomeno horiek testuinguruan jartzeko, aniztasuna errespetatzeko eta osagai horiek sorkuntzarako eta esperimenezko iturri gisa hartzeko. Gaur egun, gero eta indar handiagoa du jantzien denboraz kanpoko diseinuak, zeina baitago denboraldietako joeretatik aske eta kalitatean, iraunkortasunean eta oinordetzan oinarrituta. Kontzeptu eta hizkuntza propioa duen moda da, eta arazo etiko eta jasagarriekin batera bizi da, etengabe berrituz eta epe luzerako ikusmoldeak aurreratuz.



Materialak

Zuntza da ehun bat egiteko lehengaia, eta ehuna, berriz, jantzi bat ekoizteko lehengaia. Jatorri ugariak —naturalak, artifizialak, sintetikoak, teknologikoak, etab.— eta ezaugarri askotakoak, gaur egun, modaren industria jasangarriagoa izan dadin, irtenbide biodegradagarriak eta jatorri naturalekoak (frutak, perretxikoak, intsektuak eta abar ugari eta bitxia) ikertzen ari dira. Azken batean, ingurumenean inpaktu txikia duten irtenbideak dira, edo, beste era batera esanda, ehun etikoak dira, bai eta lehendik sortuta dauden beste batzuk leheneratzeko edo produkzio-prozesuko soberakinentzako erabilera berriak bilatzeko irtenbideak ere.




LEHEN HEZKUNTZA
Kolore eta tindagai naturalak
Hariari jarraitu!

BIGARREN HEZKUNTZA
Kustomizatu eta birziklatu

BATXILERGOA / LH
Balenciaga eta goi mailako
jantzigintza: slow fashion

Teknikak

Patroigintzako matematika eta geometriatik hasi eta ehungintzako teknika eta teknologiaraino, zero waste edo zero hondakinera iristeko lan egiten da gaur egun. Diseinu eta mozketa adimentsuan oinarritutako filosofia bat da, non ez baita hondakinik sortu ere egiten. Praktikan, teknika horren helburua da jantzi bat egiteko material guztia erabiltzea, piezen artean espazio hutsik utzi gabe, elkarren artean lotzen diren eredu bidez edo minimalismo eraikitzaile bat lortzeko asmoz. Ahalik eta ebaki, jostura eta hondakin gutxien sortzea eta gorputzeko anatomia egokitzea -forma eta silueta berritzaileen batura lortuz- bilatzen duen lan-metodo hori da, hain zuzen ere, Cristóbal Balenciagaren proposamenen oinarrian dagoen lan-metodoa.





Kulturak

Materialak

Teknikak

HAUR
HEZKUNTZA

Eraldatutako gorputzak

LEHEN
HEZKUNTZA

Silueta (u)topikoak

Kolore eta tindagai naturalak

Ehungintza arloko ofizioak

Hariari jarraitu!

BIGARREN
HEZKUNTZA

Moda, denboraren
makina

Kustomizatu eta birziklatu

Azaletik bolumenera

Moda eta elektronika sortzailea

BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

Balenciaga eta silueten
iraultza

Balenciaga eta goi mailako
jantzigintza: slow fashion

Balenciaga eta teknika

Balenciaga, tradizioa eta
berrikuntza

A black and white photograph of a woman with her hair in braids, focused on her work at a sewing machine. The image is partially obscured by a large, stylized graphic overlay. The word 'RE' is written in large, orange, hand-painted letters, overlapping the woman's head and the machine. To the right of 'RE', the words 'duce.', 'use.', and 'cycle.' are stacked vertically in a smaller, green, hand-painted font. The background is softly blurred, showing the profile of another person in the upper right corner.

REduce.
use.
cycle.

Jarduerak

Haur Hezkuntzako jardueretan, zentzumenak eta elkarlanaren bidezko ikaskuntza baliatuko dira ingurunea deskubritzeko metodo gisa.

Miaketari eta esperimentazioari esker, Lehen Hezkuntzako jardueretan Museoko bildumei lotuta dauden ikasgaietan sakonduko da, eta ikasleak trebatuko dira.

Behaketari eta parte-hartzeari esker, Bigarren Hezkuntzako jarduerak lagungarriak izango dira modari dagozkion kontzeptuetan eta mintzairetan sakontzeko.


Batxilergoko eta Lanbide Heziketako jardueretan, gizarte eta kultura garaikideari buruzko azterketa eta hausnarketa egingo da, autonomia eta gaitasun kritikoa bultzatzeko.

Eraldatutako gorputzak

Museoekin eta, bereziki, modarekin -hurbileko ingurunearen parte diren aldetik- goizik harremanetan jartzeko asmoz, siluetaren ideia eta gorputz jantziaren sormen-aukeretara hurbiltzea proposatzen du jarduerak. Bolumen bereziak dituzten zenbait obraren behaketa eta analisia sustatuko da, eta irudimena eta esperimentazioa lantzeko, kapa bat sortuko da, hainbat atributu lantzeko helburuarekin, esaterako, forma eta jantzien funtzio eraldatzailea.

 KULTURAK

 4 eta 5 urteko ikasleak

 1 ordu 30 min


Erakusketara bisita eta tailerra

Ehungintza arloko ofizioak

Jarduera honek jantzigintzaren artea eta ogibidea ezagutarazi nahi ditu. Ikasleek jantziak sortzeko ogibide eta ardura nagusiak identifikatu eta ikasiko dituzte, eta, orobat, baita haietan erabilitako artisautzako prozesuak ere. Tailerrean, parte-hartzaileek kamiseta bat pertsonalizatuko dute, koloreekin, formekin eta ehundurekin jolastuz.

 TEKNIKAK

 Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak

 2 ordu

Erakusketara bisita eta tailerra

Kolore eta tindagai naturalak

Ekimen honetan kolorea landuko da. Kolore primarioak zein diren eta kolore osagarriak nola lortzen diren ikasiko dute ikasleek. Nola ematen zaie kolorea oihalei? Zer material erabiltzen dira horretarako? Parte-hartzaileek tindatzeko landareak, animaliak eta bestelako baliabide naturalak identifikatu eta sailkatuko dituzte, tindatze-praktikak gauzatuko dituzte eta, hala, oihalen lagin kromatikoa sortuko dute.



MATERIALAK



Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak



2 ordu

Erakusketara bisita eta tailerra

Hariari jarraitu!

Nola lortzen da haria? Nola egiten da ehuna? Zer tresna erabiltzen dira ehuna egiteko? Ehun-zuntz naturalen jatorria deskubritu ahal izango dute ikasleek, bai eta ehunak egiteko prozesua bera ere. Ehungailu bat erabilia oinarrizko oihala egingo dute, halaber, ikasleek.



MATERIALAK



Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak



2 ordu


Erakusketara bisita eta tailerra

Silueta (u)topikoak

Ekimenean, siluetaren esanahian sakonduko da, estalgarri dituen jantzien bidez gorputzak izaten dituen aldaketak hautemateko. Jantziak gorputzformetan egiten dituen ekintzak zein diren jakin, haien esanahiak igarri, eta ondorio horietarako ehunek dituzten ezaugarriak bereizi: horra jarduerak izango dituen esperientzietako batzuk. Ibilbidea osatzeko, tailer bat egingo da, eta, bertan, ikasleek silueta berriak egingo dituzte, surrealisten asmatu zuten eta «Ondorioak» denbora-pasa oinarritzat duen metodo berezia erabiliz.

 KULTURAK

 Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak

 2 ordu


Erakusketara bisita eta tailerra

Kustomizatu eta birziklatu

Jardueraren helburua naturaren mugekin bat datozen bizitzeko eta garatzeko moduak izateko beharrari buruz kontzientziaztea da. Bisitaldian, modako jardunbide jasangarriari buruzko hausnarketak bilatuko dira, eta tailerrean ikasleek jantziak sortuko dituzte kustomizatzeko metodo errazekin eta oihal birziklatuekin.

 MATERIALAK


 Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak

 2 ordu


Erakusketara bisita eta tailerra

Azaletik bolumenera

Jarduera honen helburua Cristóbal Balenciagaren sorkarietan agerikoak diren forma- eta geometria-kontzeptuak irakastea da. Ikasleek gorputzera egokitzen diren hiru dimentsioko piezak lortuko dituzte, hainbat figura geometriko bi dimentsiotan patroi batean marraztu eta buruketa erraz batzuk egin ondoren.

 TEKNIKAK

 Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak

 2 ordu 15 min

Erakusketara bisita eta tailerra


La Casa del Vacío-rekin elkarlanean diseinatutako jarduera

Moda, denboraren makina

Janzteko moduak eta modak izandako bilakaera izango da jardueraren ardatza. Janzkeran izandako aldaketak aztertzeaz gain, horiek gertakari historiko, ekonomiko eta sozial jakin batzuekin lotuko dira. Iraganeko eta gaur egungo emakume-janzkeren arteko antza eta aldea aztertuko dute parte-hartzaileek eta, gero, lantegian, beren diseinu propioa sortuko dute.

 KULTURAK

 Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak


 2 ordu

Erakusketara bisita eta tailerra

Moda eta elektronika sortzailea

Modari aplikaturiko teknologiarri buruzko tailer honen helburua elektronikako oinarrizko jakintzak eskaintzea da. Parte-hartzaileek zirkuitu bat eraikitzen ikasiko dute, material berriekin esperimendatuko dute eta elektronikaren diziplina ehunetan txertatzeak eskaintzen dituen sormen-aukerak arakatuko dituzte.

 TEKNIKAK

 Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak

 2 ordu 15 min


Erakusketara bisita eta tailerra


Paola Guimeranekin elkarlanean diseinatutako jarduera

Balenciaga, tradizioa eta berrikuntza

Jarduera honen ardatz hartuko dira Cristobal Balenciagaren sormenean eragin handia izan zuten iturriak eta hark zuen modaren interpretazio berezia, haren ezagutza kultural eta estetikoan oinarrituta. Izan ere, jostunak gaitasun berezia du tradizioa modu berritzailean interpretatzeko eta, aldi berean, emakumeen gorputzaren inguruko lerro eta bolumen berriak aztertzeko.

 KULTURAK

 Batxilergoa/Lanbide Heziketa

 2 ordu 15 min


Erakusketara bisita dinamizatua.

Balenciaga eta teknika

Cristóbal Balenciagaren maisutasun teknikoa izango da jardueraren ardatz nagusia, eta hark bere obretan aplikatu zuen esperimentazioa eta bizi izan zuen bilakaera erakutsiko zaie ikasleei. Ikusgai dauden jantziak xehe analizatuko dira haien patroien kopiekin batera, ikasleek hobeto ulertu eta bereganatu dezaten zer-nolako berrikuntzak proposatu zituen Getariako jostunak.

 TEKNIKAK

 Batxilergoa/Lanbide Heziketa

 2 ordu 15 min


Erakusketara bisita dinamizatua

Balenciaga eta silueten iraultza

Cristóbal Balenciagak emakumeentzako jantzien historiari egin dakioken ekarpenik handienetako bat egin zuen: silueta berriak sortzea. Ezarritako joerak hautsi zituzten lerro naturalak eta kurbatuak eta bolumen harrigarriak dituzten modeloak ezagutuko dituzte ikasleek.

 KULTURAK

 Batxilergoa/Lanbide Heziketa

 2 ordu 15 min


Erakusketara bisita dinamizatua

Balenciaga eta goi mailako jantzigintza: slow fashion

Goi-mailako jantzigintza, eskuz, material eskusiboak eta bikainak erabiliz egindako jantziak, galkorra ez den modaren adierazpide gorentzat har daiteke hasieratik. Horiek horrela, slow fashion edo moda geldoa gero eta indar handiagoa hartzen ari den honetan, bisita honek aurreko garaietakoak diren baina orainean ere indarrean dauden kontzeptuetara itzultzea proposatzen digu, modako urtaroaren araberako egungo kontsumo azkarraz eta masiboaz hausnartzeko.

 MATERIALAK

 Batxilergoa / Lanbide Heziketa

 2 ordu 15 min

Erakusketara bisita dinamizatua

Neurrira

Ikastetxeentzako hezkuntza-programa tresna dinamiko eta irekia da. Hala, Cristóbal Balenciaga Museoaren Hezkuntza Sailak komunikazio etenik gabea eta baterako lankidetzaz ezarri nahi ditu ikastetxeekin, eta aipatutako jarduerak ikastetxeon interesen eta beharren arabera aldatzeko eta moldatzeko aukera eskaintzen du. Horregatik, ekimenetan parte hartzeko asmoa duten irakasleei eta ikasgelako programaziora egokitzeko informazioa lortu nahi dutenei gonbit egiten diegu Museoko taldearekin harremanetan jartzera, eta hezkuntza-arloan eskaintzen diren aukera ugariak aztertzeraz.

GARRANTZITSUA

Zure ikasgelako ikasleren batek hezkuntzako premia bereziak baditu, esan Museoko taldeari bisita egin baino lehenago.

DATU PRAKTIKOAK

EGUTEGIA

2020ko urritik 2021Eko ekainera bitartean.

ORDUTEGIA

Goizeko ordutegian.

HIZKUNTZAK

Euskara, gaztelania eta ingelesa.

TALDE BAKOITZEKO IKASLE KOPURUA

Elkarbitza talde egonkorra osatuko duten ikasleak baino ez dira aldi berean hartuko. Talde bakoitzak gutxienez arduradun batekin eta gehienez birekin etorri beharko du (Haur Hezkuntzako taldeen kasuan izan ezik; kasu horretan, hiru arduradun ere etor daitezke).

PREZIOA, TALDEKO

70€ bisita dinamizatuek eta 90€ tailer-bisitek. Irakasleek doan dute sarrera. Ikasturte batean ikastetxe beretik etorritako hirugarren taldearen ondorengoei (hirugarrena barne), %25eko deskontua aplikatuko zaie tarifar.

NAHITAEZKOA DA IZENA EMATEA.

HARREMANETARAKO

T 943 008 840

didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com

www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia / San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18'6.92" N
2° 12' 18.77" W